

opusdei.org

Intelektual kristauen eginkizuna

Nafarroako Unibertsitateko
errektorearen gogoetak

2021 Api 23

Zalantzarik gabe, Europa gero eta sekularizatuagoa da, eta, gure herrialdean, katolikook gutxiengo berri bihurtzeko bidean goaz, bai zenbakien bai kulturaren aldetik. Testuinguru horretan, eta aipatu berri den eztabaidak agerian utzi duenez, kristauen «ahotsa» falta da

gizartean, ekonomian edo kulturean. Nire ustez, arrazoia da erlijioarekiko gero eta jarrera kontrakoa delako, eta bestetik, katolikoek kristaupentsamenduaren proposamen nagusiak modu erakargarri eta sinesgarrian aurkezteko gaitasuna galdu dugulako.

Azken horretan erantzukizun berezia dugu hezkuntza-erakundeak. Metafora futbolistiko bat erabiltzeko aukera ematen badidazu, esango nuke entrenamenduan hobetu egin behar dugula (prestakuntza intelektualaren sakontasuna), taldea egiteko gai izan behar dugula (elkarrizketan aritu eta sinergiak bilatu) eta zelaira egunero atera behar dugula, norberaren erantzukizunari uko egin gabe.

Galdera. Oso sekularizatua den gizarte baterantz bagoaz, nola bizi gaitezke kristau gisa gaur egun?

Erantzuna: Gaur egungo gure
erreferenterik onena lehen kristauak
dira. Haiek mundu pagano batean
bizi ziren, baina ez ziren handik
erretiratu. Hain zuzen ere,
Nafarroako Unibertsitatearen
sortzaile San Josemariak maiz
gonbidatzen gintuen mundua grinaz
maitatzera eta lan profesionalaren
bidez hura aldatzen laguntzera.
Lehen kristauak egoera zailetan bizi
ziren, gu bezala. Haien bizitasuna ez
zen jarrera xaloaren ondorio, baizik
eta fedearen, indarraren eta
hainbeste erakartzen zituen
karitatearen adibidearen ondorio.

Unibertsitateen ikuspegitik,
batzuetan, hiru akats egon
daitezkeela azaltzen dut. Lehena
araugintzan geratzea da, arauak
erakunde batean balio kristauak
egotea bermatuko balute bezala.
Berez, erabakigarriena pertsonak
dira, eta, zehazki, irakasleak.
Bigarrena «uzkurtzeko estrategia»

bat hartzea litzateke: fedea partekatzen dutenei bakarrik zuzentzea. Hartara, bistan da kristau-jarrerak elkarrizketa eta irekiera eskatzen dituela.

Alde batetik, Ebanjelioaren mezua unibertsala delako, denak balia daitezke horretaz. Eta, bestetik, bizi dugun polarizazio eta liskarren testuinguruan, katolikoek zubiak egiteko gai izan beharko genuke. Kristautasuna ideologien gainetik dago, ez baita indarra edo boterea oinarri. Hirugarren akatsa kamuflaje-jarrera izango litzateke: identitate kristauaren kanpoko zeinu batzuei eustea baina fedearen gai nuklearretan konprometitzea ekiditea, inor ez nahasteko.

intelektual-kristauen-eginkizuna/ (2025
Abu 6)